

# **ARETXABALETAKO UDALA**

**EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN)  
2009-2012 PLANGINTZALDIA**

## 1. Aretxabaletako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburua

Aholku batzordekideek datozen lau urteetarako definitutako helburu nagusia honakoa izan da:

**“Bizitzaren alor guztietan euskararen erabilera bermatzea Aretxabaletan:**

- **prestigioa berreskuratuta,**
- **euskaldunak aktibatu eta motibatuta,**
- **beharra sentiarazita, euskaldun zein euskaldun ez direnei**
- **ezagutzan (eta, ondorioz, kalitatean) eraginda”.**

Hainbat ideia aipatu dira: **erabilera, kalitatea, kontzientzia, erabilera, beharra, prestigioa , “aktibatu”, “soka tentsatu” eta horrez gain hainbat esparru: zerbitzuak, aisialdia...**

Kontzientziatzeaz aparte, nahitaezkoa da beharra sortzea, beste aukerarik ezean euskaraz aritzea edo aritzera bultzatzea.

Bestalde, **prestigioa** berreskuratzen badugu, besteak beste, **gazteentzat erakargarriagoa** izango da euskaraz egitea. Euskaldun guztiek beti euskaraz egiten badugu, **beharra sortuko diegu euskaldun ez direnei**. Horrela, **ezagutzan eragingo dugu**, bai euskaldunon artean (erabilerak ezagutza eta kalitatea hobetuko dituelako), baita euskara ikasteko beharra sentituko dutenengan ere. Eta, ondorioz, gure bizitzaren alor guztietan euskara erabiltzeko gai izango gara.

## **2. EBPNren helburu estrategikoak eta esparruak**

### **I Euskara, belaunez belaur eta etenik gabe ondorengoetaratzea**

- Hezkuntza
- Helduen euskalduntze-alfabetatzea
- Euskararen familia bidezko jarraipena

### **II Erronka nagusia belauraldi berrietako euskaldunentzat euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik beste erabilera-eremuetara zabaltzea da**

- Administrazioa
- Gune euskaldunenak
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak
- Lan-arloa
- Aisia
- Kirola
- Erlijioa

### **III Hizkuntza eroso eta erraz hitz egiteko, etengabe elikatu**

- Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea
- Prentsa idatzia
- Liburugintza
- Irratia
- Telebista
- Publizitatea
- Kulturgintza

Euskara ondorengoetaratzea: IRAKASKUNTZA	DIAGNOSTIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Aretxabaletan dagoen eskaintza osoan D eredua dago.</li> <li>o Haur eta gazteek ez dute hizkuntzarekiko lotura sentimentala</li> <li>o EGA→ zigor bezala ere hartzen da, gogoz kontra egin beharreko zerbait balitz bezala</li> <li>o Euskara Batua eskolarekin lotzen da, nahitaez egin beharreko zerbait balitz bezala</li> <li>o Ikasleak idazten eta hitz egiten dute oso ondo, baina gero eta joera handiagoa daukate gaztelaniarako</li> </ul>	
<b>EKINTZAK</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak garatzeko laguntzak eskaini</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak burutzeko laguntza ematea</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasgelaz kanpoko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeki begira, Eusko Jaurlaritzak horretarako duen programaren berri ematea eta horretan parte hartzeko laguntza eskaini</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini. <i>Euskal literaturaren inguruko elkarteekin harremanetan jarri eta urteko programa definitu.</i></b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>"Euskara Zine Aretotara" programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskalkia era sistematikoan landu ikastetxeetan.</b></li> </ul>	

Euskara ondorengoetaratzea: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA	DIAGNOSTIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Euskaltegian ikasi eta erabili ez</li> <li>o Euskaltegian ematen dena ez da nahikoa: praktika gutxi eta teoria asko</li> </ul>	
<p><b>HELBURUA: Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen ezagutza handitu herritarren artean. Helduen prestakuntza eskaintzan euskararen erabilera</b></p>	
<p><b>EKINTZAK</b></p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorri berrientzako ikastaroak antolatu: AISA.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatu jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratu</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaltegiekin batera ekintzak jarri abian, ikasleei euskara sendotzeko: topaguneak, jardunaldiak, udarako barnetegiak, murgiltze ekintzak..... <b>Barriketan</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Baldintza minimo batzuk betetzearen truke dirulaguntzak eskaini</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Barriketan ekimena indartu, : Euskara ikasten ari direnek erabiltzeko aukera izan dezaten, euskara jakin eta egiteko ohitura ez dutenek ohitura berreskuratu dezaten. "Gurasolagun" proiektua.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteengan eragin: gazte hizkerari bereziki erreparatu: Hitzaldiak saioak, ikastaroak.....</li> </ul>	

Euskara ondorengoetaratzea: FAMILI TRANSMISIOA	DIAGNOSTIKOA
<p><b>ATXIKIPEN AFEKTIBOA</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Haur eta gazteek ez dute hizkuntzarekiko lotura sentimentala</li> </ul> <p><b>HI ZKUNTZA-OHITURAK</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Askotan lehen hitza aukeratzeko orduan <b>aurreiritziz jokatzen dugu</b> eta solaskidearen itxuraren arabera edo lekuaren arabera erabakitzen dugu zein hizkuntza erabili. Askotan horregatik euskaldunen artean gaztelaniaz aritzen gara.</li> <li>Zenbaitetan gure solaskideak euskaraz jakin badaki, baina erosoago aritzen denez gaztelaniaz, gaztelaniara jotzen du eta guk ere bai.</li> <li><b>Hizkuntza-ohiturak errotuz gero, oso zaila da gero aldatzea.</b></li> <li>Senar-emazte edo bikotekideen artean zenbaitetan gaztelaniaz aritzen gara; <b>erosotasunagatik</b>; edo/eta gaitasun kontuagatik?</li> <li>Bereziki <b>kezkagarria da haurren arteko erabilera</b>. Igual egingo dute imitazioagatik, gurasoak gaztelaniaz egiten ikusten dituztelako; <b>bi hizkuntza ikusiko dituzte: haurrena eta helduena.</b></li> <li>Etxekoa ez da kalean segitzen.</li> </ul>	
<p><b>HELBURUA: Euskararen erabilera handitu etxeko esparruan, eta transmisioa ziurtatu familia kideen arteko hizkuntza izan dadin</b></p>	
<p><b>EKINTZAK</b></p>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Euskaraz dakiten haur zaintzaileen zerrenda osatu eta gurasoen eskura ipini</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Haur jaioberrien gurasoentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak, kantuak,...)</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Euskararen erabilera ardatz nagusitzat izango duten guneak eratu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Haurrak izango dituzten bikoteei behar dituzten zerbitzuak eskaini (haurra izan aurreko ikastaroak, dokumentazioa,...)</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Familia osatu berria duten bikote erdi-euskaldunak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai hurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gurasoen hizkuntza ohituretan eragin: Hitzaldiak, Telp tailerrak,</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Familia barruan euskararen erabilera bultzatzeko egitasmo zehatzak martxan jarri: Gurasolagun</li> </ul>	

Euskararen erabilera: ADMINISTRAZIOA	DIAGNOSTIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Aretxabaletako administrazioko langileak gai dira euskaraz atenditzeko.</li> <li>o Udaletxean euskaraz normaltasunez komunikatzeko aukera dago.</li> <li>o Udal barruan askotan euskaldunek gaztelaniaz egiten dute.</li> </ul>	
EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Agintariak ere programa hauetan inplikatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskaraz lan egitera bultzatu.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Politikariak inplikatu, euskaraz lan egiteko orduan oztopo izan ez daitezten.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udal barneko erabilera normalizatu dadin, neurriak hartu.</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak egiten dituen obra kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak egiten dituen aholkularitza eta asistentzia kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskaldun oroengana iristeko Komunikazio Plana osatu eta horren betetze mailaren jarraipena egin.</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana garatu.</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erabilera arautuko duten udal ordenantza berriak eta haren jarraipena bermatu.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak egiten dituen zerbitzuen kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezarri</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezarri</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara Zerbitzua sendotu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkarlanean</li> </ul>	

Euskararen erabilera: <b>TEKNOLOGIA BERRIAK</b>	<b>DIAGNOSTIKOA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Gazteen erreferentzia guztiak gaztelaniazkoak edo ingelesezkoak dira, euskara apenas erabiltzen den</li> <li>o Euskara Internetetik kanpo dago</li> </ul>	
<b>EKINTZAK</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Herritarrei, teknologia munduan euskaraz sortzen denaren berri eman (programak deskargatzeko aukerak, Xuxen, telefonia mobila, elebila...) sms bidez, gidak, katalogoak erabilia, web orrian zintzilikatuta, <a href="http://www.euskara.euskadi.net">www.euskara.euskadi.net</a> era linkak....</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaini</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <i>Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egin herritarren artean</i></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalak eta udalerriko elkarteek eta herritarrek interneten duten edo jartzekoa duten informazioa euskaraz ere egoteko laguntza tekniko eta diruzkoa eskaini</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ondare kulturala bildu, ahal den neurrian digitalizatu eta zabaldu: toponimia, kondaira, gertaerak, euskalkiari buruzko informazioa,...</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Laguntza ekonomikoa eta tekniko eskaini, blogak, web-ak euskaraz sortzeko, eta bertako informazioa euskaraz jartzeko</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hiztegiak, zerrendak, ikastaroak ..... lagungarri izan daitekeena herritarren eskura jarri</b></li> </ul>	



Euskararen erabilera: ERAKUNDE PUBLIKOAK	DIAGNOSTIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Correos:</b> erabat erdalduna. Erakunde estatalaren "jarrera" hori da, baina kasu honetan bertakoaren borondatea (edo falta) ere bada.</li> <li>• <b>Osakidetzan:</b> pediatria ez da euskalduna. Udala saiatu da, baina Osakidetzako arazo orokorra da; ez omen dago pediatria nahikorik.</li> <li>• <b>Bake-epaitegia:</b> Estatuko administrazioa da hau ere.</li> </ul>	
HERRITARREK PROPOSATUTAKO EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Herritar gisa, erakunde horietan insistitu egin beharko litzateke. "Eskaera" areagotu beharko litzateke.</li> <li>o <i>Postetxeko arduradunekin bilera egin Udaletik eskain daitekeen laguntzaren berri emateko.</i></li> <li>o</li> </ul>	

Euskararen erabilera: ENPRESA-MUNDUA	DIAGNOSTIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>o <b>Kooperatibetan</b> beste enpresetan baino gehiago erabiltzen da euskara eta gero eta gehiago.</li> <li>o <b>Zerbitzu-enpresetan, aseguru-etxe, finantza-erakundeak:</b> lanpostu “kualifikatuagoak” dituzte merkataritza/ostalaritzako establezimenduetan baino eta hizkuntza-ardura handiagoa dago. Zerbitzu berrietan gainera jende gazte euskalduna dago.</li> <li>o <b>Herriko betiko dendetan</b> “euskañola” edo gaztelaniaz egiten dugu, eta askotan aurreiritziekin jokutzen dugu.</li> <li>o <b>Enpresetan</b> badago udal mailan ahalegina egiteko asmoa. Erakundeek bultzatutako Programa bereziak badaude <b>euskararen erabilera areagotzeko.</b></li> <li>o <b>Denda eta taberna batzuek ez dituzte ezagutzen Udalak ematen dituen laguntzak eta erraztasunak.</b></li> <li>o <b>Komunikazio-kanpaina eta –bisita nahikoa eginda dago. Falta dena da euskara eta euskara-planak errentagarriak eta onuragarriak direla demostratzea</b></li> <li>o <b>Udalak intziditzen</b> du eskoletan, haurrek euskaraz hitz egin dezaten, baina haurren gurasoak ere izan beharko lituzke buruan: fabriketara joan, hitzaldiak antolatu...</li> </ul>	
EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresetan barne eta kanpo plangintzak egiteko laguntza eskaini</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Bertako enpreseko harremanetan euskara lehenetsi (tramite administratiboak, zirkularrak, gutunak,..)</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bertako enpresen artean Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak eskaintzen dituzten laguntzak ezagutarazi eta eskaera egiteko languntza eskaini</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Arloko elkarteekin harremanetan jarri eta euskararen inguruko proposamen orokor bat egin</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Lehen hitza euskaraz izan dadin lagundu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Sektoretako arduradunei (dendariei, tabernariei,..) euskara erabiltzearen abantailak ikustarazi</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eraginkorrak diren establezimenduak identifikatu eta mikroplangintzak egin.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkataritza eta ostalaritza euskalduntzeko saioak abian jarri</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eragile nagusien partaidetza lortzeko banan-banako sentiberatze jardunak egin</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sindikatuak, Merkatal Ganbarak eta enpresa munduan eragina duten agenteekin euskara bultzatzea ezagutarazi.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak eskaintzen dituen laguntzen berri eman: Itzulpenak, dirulaguntzak, ikastaro bereziak.....</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herritarrak sentsibilizatu eta euskaraz egitera bultzatu</li> </ul>	

Euskararen erabilera: AISIA	DIAGNOSTIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Loramendiren lana positiboa da.</li> <li>o Aisialdiko ekintza gehienak euskaraz dira.</li> <li>o Arkupekin gehitu egin da eskaintza, eta euskaraz ere bai.</li> <li>o Orain arte azpiegitura falta egon da, baina kultur etxe berria martxan dagoenetik egoera hobetu da.</li> <li>o Ekintza asko solapatu egiten dira.</li> <li>o Erreibindikazio historikoa izan den zinea martxan da</li> <li>o Oro har, aisialdiko aktibitate gutxi dagoela esan da, baina badirudi komunikazio-arazoa dela; herritarrek ez dutela jasotzen dagoen guztia.</li> <li>o Batzuentzat badirudi euskarak ez duela balio ondo pasatzeko, esperientzia berriak bizitzeko... Euskara zerbait zaharra da, lehengoa, gaur egungo bizimodu eta aisialdirako balio ez diguna</li> </ul>	
EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Tailer-ikastaroak euskaraz antolatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udan euskaraz antolatzen diren ekintzak indartu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludotekak, kultur etxeak...) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Etorri berrien integrazioa bideratutako aisialdi programak bideratu</b></li> </ul>	

Euskararen erabilera: KIROLA	DIAGNOSTIKOA
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Kirol mailako eskaintza badago euskaraz.</li> <li>o Eskola-kiroleko begiraleak euskaldunak dira (aktibitate pribatu batzuk kenduta), baina erabilerari dagokionez, kasu honetan ere, giza faktorea dago tartean.</li> <li>o Kirol federatua "helduezina" da. Lan handiena borondatepean baitago.</li> </ul>	
EKINTZAK	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskara eta kirola uztartu</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udaleko kirol ekintzak modu koordinatuan garatu</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol munduko teknikari euskaldunen zerrenda egin (monitore, entrenatzaile...) eta zabaldu</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak egin</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol federatuan ere euskarak duen garrantziaren inguruko sentsibilizazioa landu: Ikastaroak (Begiraleek asko egin dezakete)</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezarri</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Federazioen eta kirol taldeen euskararen normalizaziorako barne plangintzak egiteko laguntza eskaini.</li> </ul>	

Euskararen erabilera: <b>ERLIJIOA</b>	<b>DIAGNOSTIKOA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Elizak euskararen alde apustua egina dauka eta oso kontuan dauka eta zaintzen du.</li> <li>o Katekesian euskaldunak eta euskaraz ez dakitenak hartzen dira kontuan, baina azkenean euskaldunek hobekien datorkien egunaren arabera aukeratzen dute, ez hizkuntzaren arabera. Parrokian meza ele bietan. Mojen etxean goizeko 9etan, euskaraz.</li> </ul>	
<b>EKINTZAK</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Katekesia euskaraz ere eskaini</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eliz ospakizunetan euskara lehenetsi</li> </ul>	

Euskararen kalitatea: <b>Corpus-plangintza</b>	<b>DIAGNOSTIKOA</b>
<ul style="list-style-type: none"> <li>o Euskararen kalitatea: Ona (oso optimista izanda)</li> <li>o Generazio berriek nahastuta erabiltzen dute euskara eta gaztelania</li> <li>o Hurrek izugarrizko nahasmena daukate: etxean batzuetan gurasoek gaztelaniaz haien artean, seme-alabekin euskaraz euskalkian, eskolan Euskara Batua...</li> </ul>	
<b>EKINTZAK</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Hizkuntza ondarea gordetzeko eta zabaltzeko ekintzetarako laguntza eskaini</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Kasuan kasuko euskalkiaren azterketa linguistikoa egiteko laguntzak eskaini Euskaltzaindiaren arauak eta metodologia betez</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Euskalkia prestigiatu: Goienan euskalkiari lehenetsi; Goitb, Goienkaria....</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Irakasleak euskalkian trebatu</b></li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Merkatal guneetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademia eta abarretan) euskararen presentzia txukundu eta areagotu</b></li> </ul>	

Euskararen kalitatea: <b>KOMUNIKABIDEAK</b>	<b>DIAGNOSTIKOA</b>
o Esparru honetan garrantzitsua GOIENAREN ETA GOIENKARIAREN lana. Azken urteetan euskara gehiago bultzatu dute.	
<b>EKINTZAK</b>	
• <b>Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtu</b>	
• <b>Eskualdeko edo herriko euskarazko komunikabideei laguntzak emateko irizpideak finkatu eta horren arabera esleitu dirulaguntzak</b>	
• Euskarazko herriko edo eskualdeko komunikabideetan teknologia berrien erabilera sustatu	
• <b>Haur eta gazteentzako euskarazko eskaintza sustatzea</b>	

Euskararen kalitatea: **PUBLIZITATEA**

**EKINTZAK**

- Publizitatea euskaraz egitearen aldeko sentsibilizazioan lan egin sektoreetako elkarteekin batera (merkatarien elkartea, ostalarien elkartea,...)
- **Herritarrek edo enpresek publizitatea euskaraz egiteko laguntza teknikoa eman**

**HERRITARREK PROPOSATUTAKOIA**

- Laguntza bereziak eman publizitatea euskara hutsez egiten dutenei.
- Publizitatea gaztelaniaz egiten duenari jakinarazi Udalak itzulpenak egin ditzakeela. Modu asertiboan???
- 
- 
-



Euskararen kalitatea: **KULTURGINTZA**

**EKINTZAK**

- **Udalaren menpeko kultur guneetan euskarazko materialak eguneratuta izatea eta herritarren eskuera ipintzea**
- **Euskaltegi, ikastetxe eta herriko elkarteekin batera ekintzak antolatu**
- Euskaraz ulermena soilik duen publikoa erakartzeko kanpaina bereziak antolatu
- Inguruko herriekin eskualdeko kultur zirkuituak antolatu.